2) Atez ateko sistema jarria dagoen lekuetan hau ez da erraustegiaren alternatiba. Katalunian eta Austrian, zenbait lekutan, atez ateko sistema dago eta bertako azken hondakinak erraustegietara bidaltzen dira. Hori ere gertatuko da gure kasuan. Erraustegietara eramanak izango direla atez atekoaren azken hondakinak.

2) El sistema Puerta a Puerta, allá donde está instaurado, no es de ninguna manera una alternativa a la incineradora, ya que en las zonas de Cataluña y Austria donde existe el PaP el sobrante de residuos es incinerado.

3).- Zaborren arazoa ezin liteke izan eztabaida eta borroka lekua. Indar politiko desberdinen akordioa behar da arazo hau bideratzeko, herritarren ongizatea jokoan

3) La cuestión de las basuras no debe de ser motivo de disputa sino motivo de acuerdo entre las diferentes fuerzas políticas, tratándose de un tema básico que afecta al bienestar de todos los

baitago. Gipuzkoaren gehiengo politikoaren borondatea (EAJ, PSOE eta PPk agertutakoa) zapuzteko erabiltzen du atez atekoa Bilduk. Borroka tresna bezala, hain zuzen ere. Atez atekoaren aldeko 32 herri horien erabakiak hondakinen %30 suposatzen du bakarrik. Horrelako baldintzetan, atez atekoaren esperientzia irteerarik gabeko bide bat da.

ciudadanos. Bildu usa la cuestión del PaP como un instrumento de negación de la mayoría política de Gipuzkoa (PNV, PSOE, PP…) y como un instrumento de lucha, poniendo la alarma social como ingrediente. Los treinta y tantos pueblos de Bildu que van a poner el PaP no representan más que el 30% de los residuos urbanos. En esas condiciones, el PaP es una experiencia parcial condenada al fracaso.

4) Atez ateko sistemaren esperientzia Gipuzkoako herrietan frakasoa izan da. Legez kanpoko bertederoak, handik honuntza dabilen zaborra, kaleak zintzilikarioz eta arratoiez beteak, herritarrarentzat enbarazua hondakin organikoak kentzeko unean… Erreziklaiaren estatistikak herri horietan ez dira benetakoak zabor ibiltaria eta bestelako faktoreak kontuan hartzen ez dituelako.

4).-La experiencia del PaP en los pueblos de Gipuzkoa en los que se ha instaurado es profundamente negativa. Vertederos ilegales, basura trashumante, espectáculo vergonzoso de las calles llenas de colgadores de basuras que son nidos de ratas, embarazo para el ciudadano a la hora de deshacerse de su residuo orgánico… Las estadísticas de reciclaje en esos pueblos están falseadas por que no tienen en cuenta el porcentaje de basuras que huye de los pueblos y los otros factores citados.

5)Atez atekoaren arazoak ere erakusten du Bilduren demokraziaren eredua: Bilduk herritarren partaidetza, erabakitze eskubidea eta herrikoi kontsulta errebindikatzen ditu baina gai honetan ez ditu aplikatu nahi inolaz ere. Astigarragan, gainera, alkateak herriari emandako hitza traizionatzen du eta sistema hori inposatu nahi du herriaren protestei eta oposizioaren deiei kasurik egin gabe.

5) La cuestión del PaP muestra también cual es el modelo de democracia de Bildu: un modelo que reivindica cuando quiere la participación ciudadana, el derecho a decidir y la consulta popular pero que, para este tema, los niega de forma absoluta. Bildu en Astigarraga traiciona la palabra dada al pueblo por el actual alcalde y pretende imponer un sistema de basuras haciendo caso omiso a la protesta popular y a los requerimientos de la oposición.

6) Azpimarratzekoa da ere atez atekoaren sistema Gipuzkoan Garbitania enpresa publikoaren eskutik doala. Bildurengatik sortua eta osatua, bere kudeaketa instituzio demokratikoen kontrolik gabea. Atez atekoa ez du bakarrik zaborren arazoa arazoago bihurtuko, Bildu diruz betetzeko balioko du ere bai, dirutza publiko piloa horretan gastatuz.

6)Es también una cuestión destacada el hecho que la instauración en Gipuzkoa del PaP corre a cargo de Garbitania, empresa pública creada por Bildu y formada por cargos políticos de Bildu, cuya gestión se ha mostrado inefectiva y opaca. El PaP no sólo agravará el problema de las basuras sino que servirá para engordar al organismo político de una coalición, gastando de forma inútil una enorme

Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

cantidad de dinero público.

Instituzioak arazoak bideratzeko jaio dira, ez arazoak sortzeko. Bilduk gure herrialdea eta herria desestabilizatu nahi ditu zaborren gerra honekin. Astigarragako herriaren interesak Bilduren joko politikoaren azpian daude horrela. Gure erantzukizuna hori salatzea da.

7) Las instituciones están para solucionar los problemas, no para agravarlos. Bildu ha tomado el camino de desestabilizar nuestro territorio con la guerra de las basuras, de tal manera que los intereses del pueblo de Astigarraga están subordinados al juego político de Bildu. Nuestra responsabilidad como representantes políticos es denunciar esta situación.

8) Herritarren partehartze eta kontsulta modu guztien alde gaude, bai gure herrirako eta bai Gipuzkoako herrialderako. Bilduk eraman nahi duen ekintza gertatuen politikaren aurrean, sekula baino beharrezkoagoa gertatzen da herritarren parte-hartzea eta bere iritzia kontuan hartzea.

8) Apoyamos todos los procesos de participación y consultas promovidos por las plataformas ciudadanas de nuestro pueblo y de nuestro territorio. Frente a la política de hechos consumados de Bildu, hoy es necesaria más que nunca la participación y la opinión popular sobre este tema.

Ondoren, alkateak hitza hartu du honako hau adieraziz:
1.- H1 eta EAJ/PNV taldeek errausketa-instalaziora eraman nahi dute hondakinen % 61.
2.- Gipuzkoan 32 udalek erabaki dute Atez ateko bilketa sustatzea, eta ikusi beharko da gainerako udalek zer egingo duten, baina egia da zabor-bilketa geroz eta garestiagoa dela, eta neurririk hartzen ez badugu, kostu hori askoz gehiago handituko da.
3.- Atez atekoak sortzen omen duen zabor-turismoari dagokionez, San Markoko mankomunitateak argitaratutako datuek adierazten dute udalerri guztietan zabor-bilketa murriztu egin dela, Pasaiaren kasuan izan ezik. Hortaz, ez da egia zabor-turismo bat sortu denik, hori ez da jasangarria.
4.- Arazoa da Aldundiko aurreko gobernu-taldeak hauteskundeen aurretik sistema bat blindatu zuela, hain zuzen ere errausketa-instalazio bat ezartzea.
5.- Ez da egia Garbitania Bilduren enpresa bat denik, Oiartzun, Usurbil eta

A continuación interviene el alcalde señalando:
1.- Que H!, y EAJ/PNV quieren llevar a la planta incineradora un 61% de residuo.
2.- Que en Gipuzkoa 32 ayuntamientos han acordado impulsar el Pa P, y el resto ya se verá lo que hacen, pero lo que es cierto que la recogida de basura cada vez cuesta más y si no tomamos medidas ese costo se va a encarecer más.
3.- En cuanto al turismo de basura que se alude que genera el PaP, los datos publicados por la propia mancomunidad de San Marko indica que en todos los municipios la recogida de basura ha disminuido, salvo en el caso de Pasaia.Luego no es cierto que se ha generado un turismo de basura, eso no es sostenible.
4.- El problema está en que el anterior equipo de gobieno en Diputación previa a la elecciones blindó un sistema que era la implantación de la incineradora.
5.- No es cierto que Garbitania sea una empresa de Bildu, es una empresa

Hernaniko udalek sortutako enpresa publiko bat baita, eta haren jarduna gardena da, eta opakua dela ziur baldin badaude, auzitegietara joan daitezke.

pública creada por los ayuntamientos de Oiartzun, Usurbil y Hernani su actuación es transparente y si tienen el convencimiento de que es opaca pueden acudir a los tribunales.

Zorione Etxezarraga zinegotzia mintzatu da adieraziz Atez atekoaren eztabaidan sartzea iruzur bat dela, eta erabaki hori Aldundiak errausketaren aldeko apustua egin zuelako hartu zela esateak ez du zentzurik. Europan, tradizio ekologiko handiagoa duten herrialdeetan, hala nola Alemanian eta Austrian, bilketa edukiontziekin egiten dute, eta, horretaz gain, errausketa-instalazioak dituzte dena ezin delako birziklatu.
Raul Redín zinegotziak hartu du hitza esateko errausketa-instalazioa enpresa pribatuentzako negozio bat dela, baina ez da errentagarria 700.000 biztanleko lurralde batentzat, hala nola Gipuzkoarentzat.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga quien manifiesta que entrar en el debate del PaP es un engaño y decir que esta decisión se toma porque la Diputación apostó por la incineración no tiene sentido. En Europa en países con más tradición ecológica como Alemania y Austria la recogida la hacen con contenedores y tienen además plantas de incineración porque todo no se puede reciclar.
Interviene el concejal Raul Redín quien manifiesta que la incineradora es un negocio para las empresas privadas, pero no es rentable para una poblcación de 700.000 habitantes como tiene Gipuzkoa

Imanol Lizarralde zinegotzia mintzatu da esanez Atez ateko hori herritarren partaidetza-prozesuaren kontrakoa dela, eta alkateak jada hori errespetatzeko konpromisoa hartu zuen. Inposizio bat da, eta gai horri dagokionez, Bildu ez dago herritarren partaidetzaren alde, eta azpimarratu du Garbitania Bilduren enpresa bat dela eta Aurrekontuan atez ateko bilketarako 170.000 euro biltzea dirua botatzea dela, eta porrot egingo duela, hain zuzen ere Gipuzkoak ez duelako onartzen Batzar Nagusien bitartez.

Interviene el concejal Imanol Lizarralde quien manifiesta que este PaP va en contra del proceso participativo ciudadano, en la que el alcalde ya se comprometió a respetarlo.Es una imposición y en este tema no está Bildu a favor de la participación ciudadana, y reitera que Garbitania es una empresa de Bildu y que recoger en el Presupuesto 170.000€ para el PaP es un derroche y que va a ser un fracaso dado que las Gipuzkoa a través de las Juntas Generales no lo aprueba.

Bizilagun batek hartu du hitza esateko urteak direla osoko bilkuretara joaten dela eta ezker abertzaleak udalari partaidetza-prozesu bat garatzea eskatu dion bakoitzean ez dela onartu; gogoratu du Usurbileko adierazpenak 6 hilabeteko luzamendua eskatzen zuela errausketa-instalazioaren arloan, eta EAJ/PNV taldeak ez ziola jaramonik egin eskaera

Interviene un vecino quien manifiesta que lleva años que asiste a los plenos y que siempre que la izquierda abertzale ha solicitado al ayuntamiento desarrollar procesos participativos no se ha aceptado; recuerda que la declaración de Usurbil solicitaba una moratoria de 6 meses en el tema de la incineradora y que EAJ/PNV no hizo caso a dicha

horri. Horregatik, harritu egiten du EAJ/PNV taldeak orain partaidetza-prozesu bat eskatzeak. Gogoratu du udal-hauteskundeetan lortutako babes handiak Bildu legitimatzen duela Atez atekoaren prozesu horrekin jarraitzeko, eta, era berean, gogoratu du ezarpen hori jada onartua izan zela egun horretako osoko bilkuran, horretarako 2008ko apirilaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren egiaztagiria irakurriz, horren bitartez onartzen baita Atez Ateko metodoa ezartzeko egokitasuna.

petición.Por ello le sorprende que ahora EAJ/PNV solicite un proceso participativo. Recuerda que el amplio apoyo obtenido en las elecciones municipales legitima a Bildu a continuar con este proceso del PaP., y recuerda que tal implantación ya fue adoptada en el acuerdo plenario adoptado con fecha dando lectura a la certificación del acuerdo plenario de fecha 24 de abril de 2008 en la que se aprueba la conveniencia de implementar el método Pueta a Puerta.

Beste bizilagun batek hartu du hitza udalari eskertzeko gai horren inguruan herriari ahalbidetu zaion eztabaidagatik.

Interviene otro vecino quien agradece al ayuntamiento el debate que se ha favorecido al pueblo en relación a este tema.

Beste bizilagun batek hartu du hitza adieraziz errausketa-instalazioak kutsadura sortzen duela, gero non jartzerik ez dakiten hondakinak, eta, gainera, instalazioaren mantentze-lana oso garestia dela eta errausketa-instalazioak behar duen kontsumoak berak ezin duela jasan.

Interviene otra vecina indicando que la incineradora genera contaminación, desechos que luego no se sabe donde se pueden depositar y que además el mantenimiento de la incineradora en muy caro y no es sostenible por el propio consumo que requiere la incineradora.

Beste bizilagun batek hartu du hitza adieraziz Herrikoi elkarteak sinadurak bildu dituela herri-galdeketa bat egitea eskatzeko, eta 1.016 sinadura jaso dira guztira.

Interviene otro vecino señalando que Herrikoi como asociación ha hecho una recogida de firmas solicitando que se realice un consulta popular, para la que se han recogida 1016 firmas.

Alkateak aurreratu du ez dela bere gobernuaren asmoa herri-galdeketa bat egitea, ez delako arduratsua herritarrei galdetzea gehiago edo gutxiago kutsatu nahi duten. Adierazi duenez, herrian atez ateko bilketa nola kudeatu eta gauzatuko den zehazteko irekiko da partaidetza-prozesua.

Anticipa el alcalde que no es intención de su gobierno realizar una consulta popular dado que no es responsable preguntar a la ciudadanía si quiere contaminar más ó menos. Indica que el proceso de participación se abrirá par determinar de qué manera se va a gestionar y llevar a cabo el puerta a puerta en el pueblo.

Eztabaidak aurrera jarraitu du arestian jada adierazitako argudioak errepikatuz, eta alkateak adierazi du Bilduren mozioa bozkatuko dela:

Continúa el debate reiterándose en los argumentos ya expuestos anteriormente y el alcalde indica que se va a proceder a someter a votación la moción de Bildu:

Bilduren mozioa bozkatu ondoren, onartu

Sometida a votación la moción de Bildu

egin da aldeko 7 botorekin (BILDU) eta kontrako 4 botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2)

es aprobada con 7 votos a favor de BILDU y 4 votos en contra (2 EAJ/PNV, 2 H1)

Ondoren, alkateak EAJ/PNV taldeak aurkeztutako mozio alternatiboaren bozketa bideratu du.

Seguidamente el alcalde somete a votación la moción alternativa presentada por EAJ/PNV.

EAJ/PNVren mozio alternatiboa bozkatu ondoren, ez da onartu kontrako 7 botorekin (BILDU) eta aldeko 4 botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2).

Sometida a votación la moción de alternativa de EAJ/PNV, no es aprobada al contar con 7 votos en contra de BILDU y 4 votos a favor (2 EAJ/PNV, 2 H1).

Botoen azalpenaren barruan hitz egin du Bixente Arrizabalagak esanez hartutako erabakiak esan nahi duela ez zaiela jaramonik egin bizilagunek aurkeztutako 1.016 sinadurei.

Dentro de la explicación de voto interviene el concejal Bixente Arrizabalaga que el acuerdo adoptado supone pasar por el arco del triunfo las 1016 firmas presentadas por los vecinos.

Alkateak amaitu du adieraziz bizilagunek egindako eskaerari aurreikusitako lege-izapidetzea emango zaiola, eta idazkariari eskatuko diola dagokion espedientea irekitzea nahitaezko izapideak garatzeko; azkenik, gogoratu du partaidetza-prozesu bat izango dela, eta bizilagunekin egindako bilerak 2012ko Aurrekontuaren ondorioz eragindakoak gogoratuta izan direla askotan, uholdeen gaiarekin, eta Atez ateko bilketaren gaiarekin, besteak beste.

Concluye el alcalde manifestando que la petición realizada por los vecinos se le dará el trámite legal previsto y que ordenará a la secretaría la incoacción del correspondiente expediente para desarrollar los trámites preceptivos; recuerda finalmente que habrá un proceso participativo y que las reuniones con los vecinos han sido muy a menudo recordando las celebradas con motivo del Presupuesto 2012, con el tema de inundaciones, y con el PaP., entre otras.

## 7. Mozioa: martxoaren 29ko lan-erreformaren aurkako greba orokorra

## 7. Moción: 29 de marzo, huelga general contra la reforma laboral

Osoko Bilkuren aretotik irten da Agin Rezola zinegotzia.

Se ausenta del Salón de Plenos el concejal Agin Rezola.

Alkateak BILDUren mozioa irakurri du; bertan honako hau proposatzen da:

El alcalde da lectura a la moción de BILDU en la que se propone:

1. Astigarragako Udal Batzarreko kideok lan-erreforma salatu nahi

1. Los miembros del Pleno Municipal de Astigarraga critican la reforma laboral

dugu, enpresa-kudeaketa eskasaren eta ekonomia-eredu okerraren ondorioen zama guztia langileen bizkar gainean utzi nahi duelako.

2. Astigarragako Udal Batzarreko kideok Espainiako Erresumako Gobernuari lan-erreforma lehenbailehen indargabetzea eskatzen diogu.
3. Astigarragako Udal Batzarreko kideok Lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzea eskatzen dugu, lan-merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeko aukera euskal herritarroi emango diguna.
4. Astigarragako Udal Batzarreko kideok herritarrei dei egiten diegu martxoaren 29an lan-erreformaren aurka deitutako Greba Orokorrean parte har dezaten.

por cargar las consecuencias de la mala gestión empresarial y del modelo económico equivocado en los trabajadores.

2. Los miembros del Pleno Municipal de Astigarraga instan al Gobierno del Reino de España a retirar la reforma laboral.
3. Los miembros del Pleno Municipal de Astigarraga exitgen un Marco Vasco de Relaciones Laborales que posibilite que decidamos en Euskal Herria cómo tienen que ser las Leyes que rigen el mercado laboral.
4. Los miembros del Pleno Municipal de Astigarraga animan a la ciudadanía a participar en la jornada de Huelga General convocada para el día 29 de Marzo en contra de la reforma laboral.

Jarraian Zorione Etxezarraga zinegotziak EAJ/PNV taldeak aurkezturiko ordezko mozioa irakurri du, bertan honako puntuak jaso dira:

A continuación la concejal Zorione Etxezarraga da lectura a la moción alternativa proponiendo:

1.- Astigarragako Udalak 3/2012 Errege Lege Dekretu barruan dagoen lan erreformaren kontrako gaitzespena adierazten du, lehiakortasuna irabazteko helburua duela ezartzen duen arren, lan merkatuaren arautzea modifikatzen duelako eta lan baldintzak eta soldatak baliogabetu eta narriatzen dituelako.

1.- El ayuntamiento de Astigarraga muestra su rechazo contra la reforma laboral contenida en el Real Decreto Ley 3/2012, ya que aunque establece que su objetivo es el de ganar competencia, modifica la regulación del mercado laboral e invalida y degrada las condiciones laborales y los sueldos.

2.- Astigarragako Udalak lan harremanetarako marko autonomoa exijitzen du, Euskadin adostutako eta onartutako kontzertazioa, elkarrizketa soziala eta lan araudi propioa egiteko aukera ahalbideratuko duena.

2.- El ayuntamiento de Astigarraga exige un marco autónomo para las relaciones laborales, que posibilite la concertación acordada y aceptada en Euskadi, el dialogo social y la realización de una normativa laboral propia.

3.- Astigarragako Udalak enplegurako politika eraginkorren eskumena osorik

3.- El ayuntamiento de Astigarraga exige que se transfiera completamente la

transferitzea exijitzen du eta zerga eta tributu politikak ez eragoztea;honek ahalbidetuko du Euskaditik bertatik enplegua sustatzeko behar diren neurriak garatzea, gure berezitasunak kontuan izanik.

Bilduren mozioa bozkatu ondoren, onartu egin da aldeko 6 botorekin (BILDU) eta kontrako 4 botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2)

competencia sobre las políticas de empleo efectivas y que no se entorpezcan las políticas fiscales y tributarias, lo cual posibilitará el desarrollo de las medidas necesarias para la promoción del empleo dentro del propio Euskadi, teniendo en cuenta nuestras particularidades.

Sometida a votación la moción de Bildu es aprobada con 6 votos a favor de BILDU y 4 votos en contra (2 EAJ/PNV, 2 H1)

Ondoren, alkateak <u>EAJ/PNV taldeak aurkeztutako mozio alternatiboaren</u> bozketa bideratu du.

EAJ/PNVren mozio alternatiboa bozkatu ondoren, ez da onartu kontrako 6 botorekin (BILDU) eta aldeko 4 botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2).

Seguidamente el alcalde somete a votación la <u>moción alternativa presentada por EAJ/PNV</u>.

Sometida a votación la moción de alternativa de EAJ/PNV, no es aprobada al contar con 6 votos en contra de BILDU y 4 votos a favor (2 EAJ/PNV, 2 H1).

## 8. <u>Mozioa: Bateragune auzia</u>

Alkateak Bateragune auziaren aurrean Astigarragako Bilduk aurkezturiko mozioa irakurri du , honako akordia proposatuz:

Udal honek, herritarren gehiengoaren eskaera kontutan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Díez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodríguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaria egiten du.

Jarraian Zorione Etxezarraga zinegotziak Bateragune auziaren aurrean EAJ/PNV udal taldeak aurkezturiko ordezko mozioa irakurri du , honako akordia proposatuz:

Bateragune auzian Auzitegi Gorenak aztertuko duen helegitearen aurrean, Udal honek Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren

## 8. <u>Moción: contra el juicio Bateragune</u>

El Alcalde ha dado lectura a la moción presentada por Bildu de Astigarraga ante el juicio de Bateragune, proponiendo el siguiente acuerdo:

Este ayuntamiento, teniendo en cuenta la petición de la mayoría del pueblo, ha solicitado la desestimación de la resolución dada por la Audiencia Nacional en el juicio de Bateragune y solicita la liberación de Arnaldo Otegi, Rafa Díez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodríguez y Sonia Jacinto.

A continuación, la concejal Zorione Etxezarreta ha dado lectura a la moción presentada por el grupo municipal EAJ/PNV ante el juicio Bateragune, proponiendo el siguiente acuerdo:

Ante el recurso que el Tribunal Supremo analizará en el juicio Bateragune, este

Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonioa Jacinto aske uzteko eskaria egiten du.

ayuntamiento solicita la puesta en libertad de Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez y Sonioa Jacinto.

Bilduren mozioa bozkatu ondoren, onartu egin da BILDUren aldeko 6 botorekin eta EAJ/PNVren abstentzioko 2 botorekin eta H1en kontrako 2 botorekin.

Sometida a votación la moción de Bildu es aprobada con 6 votos a favor de BILDU y 2 votos de abstención EAJ/PNV, 2 votos en contra H1.

Ondoren, alkateak EAJ/PNV taldeak aurkeztutako mozio alternatiboaren bozketa bideratu du.

Seguidamente el alcalde somete a votación la moción alternativa presentada por EAJ/PNV.

EAJ/PNVren mozio alternatiboa bozkatu ondoren, ez da onartu BILDUren kontrako 6 botorekin eta EAJ/PNVren 2 botorekin eta H1en abstentzioko 2 botorekin.

Sometida a votación la moción de alternativa de EAJ/PNV, no es aprobada al contar con 6 votos en contra de BILDU y 2 votos a favor 2 EAJ/PNV, 2 votos de abstención H1).

## 9. Lodosako ikastolari laguntza

## 9. Moción de apoyo a la Ikastola de Lodosa

Maite Olatziregi zinegotziak BILDUk Lodosako ikastola babesteko aurkeztutako mozioa irakurri du, honako hau proposatuz:

1. Udal honek babesa, elkartasuna eta esker ona adierazi nahi dio Lodosako eta Sartagudako Ibaialde ikastolari, 25 urte hauetan haur askori euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko egin duen lanagatik.
2. Udal hau bat dator Ikastolen Federazioak abian jarritako kanpainarekin, eta konpromisoa hartu du Ibaialde Ikastolako ikasleek Astigarragan bilduko duten diru

La concejal Maite Olatziregi da lectura a la moción presentada por BILDU de apoyo a la ikastola de Lodosa proponiendo:

1. Este Ayuntamiento muestra su apoyo, solidaridad y reconocimiento al trabajo que la ikastola Ibaialde de Lodosa y Sartaguda ha venido desarrollando durante estos 25 años para garantizar el derecho de muchos niños y niñas a aprender en Euskara.
2. Este Ayuntamiento se adhiere a la campaña puesta en marcha desde la Federación de Ikastolas, y asume el compromiso de ayudar a la Ikastola Ibaialde, sumando a la cantidad de

kopuruari euro kopuru bera gaineratuko dio, eta euro horiek guztiak hain egoera ekonomiko larria bizi duen Ibaialde ikastolari laguntzeko erabiliko dira.

dinero que los alumnos de la Ikastola Arantzazuko Ama recolecten en Astigarraga, una cantidad idéntica de euros, todos los cuales se destinarán a ayudar a la Ikastola Ibaialde en esta difícil situación económica.

Mozioa bozkatu ondoren, aho batez onartu da.
Zorione zinegotziak eskatu du irizpide berbera aplikatzea 2012ko Nafarroa Oinez ekitaldian.

Sometida a votación la moción es aprobada por unanimidad.

La concejal Zorione solicita que se aplique el mismo criterio con el Nafarroa Oinez 2012.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2012ko apirilaren 2an

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**